

ITZARRI ENPLEGUKO BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEKO ERAKUNDEAREN ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.....	1
1. ARTIKULUA. OSAERA ETA IZENA	1
2. ARTIKULUA. HELBURU SOZIALA.....	1
3. ARTIKULUA. EGOITZA.....	1
4. ARTIKULUA. IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEA.....	1
5. ARTIKULUA. LURRALDE EREMUA ETA IRAUPENA.....	1
6. ARTIKULUA. GAITASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA.....	2
II. TITULUA: ELEMENTU PERTSONALAK	2
7. ARTIKULUA. ELEMENTU PERTSONALAK	2
I. kapitulua. Bazkide sustatzailea	2
8. ARTIKULUA. BAZKIDE SUSTATZAILEA.....	2
II. kapitulua. Bazkide babesleak.....	3
9. ARTIKULUA. BAZKIDE BABESLEAK.....	3
10. ARTIKULUA. ALTAK.....	3
11. ARTIKULUA. BAJAK.....	3
12. ARTIKULUA. ESKUBIDEAK	3
13. ARTIKULUA. BETEBEHARRAK	4
III. kapitulua. Bazkide osoak.....	4
14. ARTIKULUA. BAZKIDE OSOAK.....	4
15. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOAK.....	4
16. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOEN ALTA	5
17. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOEN BAJAK	5
18. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOEN ESKUBIDEAK	6
19. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOEN BETEBEHARRAK	6
20. ARTIKULUA. ETENDURA EGOERAN DAUDEN BAZKIDEAK.....	7
21. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOAK.....	8
22. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOEN ALTAK	8
23. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOEN BAJA.....	8
24. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOEN ESKUBIDEAK	9
25. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOEN BETEBEHARRAK	9
IV. kapitulua. Onuradunak.....	9
26. ARTIKULUA. ONURADUNAK.....	9
27. ARTIKULUA. ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....	10

III. TITULUA: ESKUBIDE EKONOMIKOAK MUGITZEA	10
28. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEN BESTE ERAKUNDE BATERA MUGITZEA.....	10
29. ARTIKULUA. BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEN BESTE ERAKUNDE BATETIK ITZARRIRA MUGITZEA.....	11
IV. TITULUA: ARAUBIDE EKONOMIKOA.....	11
30. ARTIKULUA. SISTEMA FINANTZARIO ETA AKTUARIALA.....	11
31. ARTIKULUA. ERAKUNDEAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	11
32. ARTIKULUA BAZKIDEEN ESKUBIDE EKONOMIKOAK	12
33. ARTIKULUA. BAZKIDEEN EKARPENEN ARAUBIDEA.....	12
34. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO GASTUAK	13
35. ARTIKULUA. ONDAREAREN INBERTSIOA	13
36. ARTIKULUA. BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA	13
37. ARTIKULUA. FUNTSEN KOKAPENA.....	13
38. ARTIKULUA. URTEKO KONTUAK, KUDEAKETA TXOSTENA ETA AUDITORETZA.....	13
V. TITULUA: PRESTAZIOAK	14
39. ARTIKULUA. PRESTAZIO MOTAK.....	14
40. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN BATERAGARRITASUNA	15
41. ARTIKULUA. PRESTAZIOETARAKO ESKUBIDEA	15
VI. TITULUA: ERAKUNDEAREN GOBERNU-ORGANOAK	15
42. ARTIKULUA. GOBERNU-ORGANOAK.....	15
43. ARTIKULUA. GOBERNU-ORGANOETAKO KIDE IZATEKO BETEKIZUNAK	15
II. kapitulua. Batzar Nagusia	15
44. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA: DEFINIZIOA ETA OSAERA	15
45. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIOAK.....	16
46. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN SAIOEN MODALITATEAK, DEIALDIA ETA QUORUMA.....	17
47. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK	18
48. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIKO PRESIDENTZIA.....	18
49. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIEN ERABAKIEN ERREGISTROA	18
50. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIKO ORDEZKARIAK ORDEZKATZEA, LEKU HUTSAK BETETZEA ETA IRAUPENA	18
II. kapitulua. Gobernu Batzordea.....	19
51. ARTIKULUA. DEFINIZIOA ETA OSAERA	19
52. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN FUNTZIOAK	19

53. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN FUNTZIOAK.....	20
54. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN DEIALDIA.....	21
55. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK.....	22
56. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA, IRAUPENA, LEKU HUTSAK ETA ORDEZKAPENA.....	22
57. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA NAGUSIA ETA BERE FUNTZIOAK	23
VII. TITULUA: DIZIPLINA-ARAU BIDEA	24
58. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK.....	24
59. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN MOTAK	24
60. ARTIKULUA. ZEHAPENAK	25
61. ARTIKULUA. PROZEDURA.....	25
62. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN PRESKRIPZIOA ETA EPEAK	26
63. ARTIKULUA. GAUZATZEA	26
64. ARTIKULUA. EZEREZTEA	26
VIII. TITULUA: ERREKLAMAZIOAK	27
65. ARTIKULUA. ERREKLAMAZIOAK EGITEKO PROZEDURA	27
IX. TITULUA: ERAKUNDEA DESEGITEA.....	28
66. ARTIKULUA. ARRAZOIAK.....	28
67. ARTIKULUA. LIKIDAZIO BATZORDEA	28
68. ARTIKULUA. LIKIDAZIO BATZORDEAREN FUNTZIOAK.....	28

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. OSAERA ETA IZENA

Itzarri Enpleguko Borondatezko gizarte aurreikuspeneko Erakundea (aurrerantzean Itzarri edo Erakundea) 2004ko uztailaren 27an eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak eskatuta, Erakundearen bazkide sustatzailea zen aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Negoziazio Mahai Orokorrak 2003ko abenduaren 17an hartutako aurreakordioan xedatutakoa betetze aldera, 2003. eta 2004. urteetako ordainsarien igoerei zegokienez.

Borondatezko gizarte aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeak, berau arautzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuak eta aplikatu behar zaizkion gainerako xedapenek arautuko dute Erakundea, estatutu hauekin bat etorritz.

2. ARTIKULUA. HELBURU SOZIALA

Erretiratzea, ezintasun iraunkorra, heriotza edo iraupen luzeko langabezia kontingentziak eman direnean bazkide osoek eta onuradunek egiaztatu dituzten prestazio publikoak osatzea da Erakundearen helburu soziala.

3. ARTIKULUA. EGOITZA

Erakundearen egoitza soziala ondokoa da: San Antonio kalea 2 – 01005 Vitoria-Gasteiz, Araba/Álava, betiere Erakundearen gobernu-organoei beste helbide bat ematen ez badiote.

4. ARTIKULUA. IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEA

Erakundeak, berez, irabazi asmorik gabeko Erakunde gisa jokatzeko du uneoro.

5. ARTIKULUA. LURRALDE EREMUA ETA IRAUPENA

Erakundearen jarduna Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan garatuko da, eta bere iraupena mugagabea izango da.

6. ARTIKULUA. GAITASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA

Erakundeak gaitasun juridiko osoa eta independentea du, eta ondasunak eskuratu, eduki, zergapetu eta besterendu ditzake; horrez gain, lortu nahi dituen helburuei lotutako egintza eta kontratu mota guztiak gauzatzeko gaitasuna ere badu, xedapenekoak barne. Horrez gain, egokitzat jotako prozedurak sustatu eta dagozkion ekintza eta eskubideak baliatu ditzake mota guztietako erakunde publiko zein pribaturen aurrean –komunitate-mailan zein estatu, erkidego, probintzia edo toki mailan– baita mota guztietako epaitegi administratibo edo jurisdikzionalen aurrean ere.

II. TITULUA: ELEMENTU PERTSONALAK

7. ARTIKULUA. ELEMENTU PERTSONALAK

Erakundearen elementu pertsonalak honako hauek dira: bazkide sustatzailea, bazkide babesleak, bazkide osoak eta onuradunak. Horrez gain, bazkide osoak egoera aktiboan, egoera pasiboan edo etendura egoeran egon ahalko dira.

I. KAPITULUA. BAZKIDE SUSTATZAILEA

8. ARTIKULUA. BAZKIDE SUSTATZAILEA

Erakundeko bazkide sustatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala da, Donostia-San Sebastian kaleko 1. zenbakian egoitza daukana, Vitoria-Gasteizen (Araba/Álava); ondorio horietarako, bazkide sustatzailearen helburu bakarra aurreztea sustatzea da, gizarte aurreikuspen osagarriaren bitartez.

Bazkide sustatzaileak lege-xedapenetan, estatutu hauetan eta Erakundearen prestazioen araudian ezarritako eskubideak eta betebeharrak izango ditu.

II. KAPITULUA. BAZKIDE BABESLEAK

9. ARTIKULUA. BAZKIDE BABESLEAK

Erakundera atxikitako erakundeak dira bazkide babesleak.

10. ARTIKULUA. ALTAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala izango dira bazkide babesleak. Horretarako, lehendabizi atxikitzeko akordio bat sinatu behar dute, eta Gobernu Batzordeak, gero, Erakundeko akordio hori onetsi behar du.

Bazkide babesle gisa sartzeko eskabidea egin ahal izango dute, Euskal Autonomi Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten gainerako erakundeek, azaroaren 11ko 1/1997 legegintza dekretuaren 7. artikuluan sartuta daudenak, Euskadiko ogasun nagusiaren antolarauetarako buruzko legearen testu bategina onartzen duena, edo ordezkatzeko duen arauak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Aholku-emaileko erakundeek, Euskal Herriko Unibertsitatea, Herri-Kontuen Euskal Epaitegia eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

Eskabideei erantzuteko gehieneko epea 90 egun naturalekoa izango da aurkezten den unetik zenbatzen hasita; aipatutako epe hori igaro bada erabaki zehatzik eman gabe, eskabidea onartu egin dela ulertuko da. Hala badagokio, Gobernu Batzordearen ezezko erabakia argudiatu egin beharko da.

11. ARTIKULUA. BAJAK

Bazkide babesleei baja emango zaie honako arrazoi hauetakoren bat dela medio:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaletik kanporatuz gero.
- b) Erakundea desegin edo iraungiz gero.

12. ARTIKULUA. ESKUBIDEAK

Bazkide babesleek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Erakundearen gobernu-organismoak osatzen dituzten kargu ugarietarako kideak aukeratzea eta aukeratuak izatea, horretarako ezarritako sistemarekin bat etorritik.

- b) Erakundearen jarduera, funtzionamendu eta finantza egoeraren berri izatea.
- c) Beharrezkotzat jotako errekurtsio eta erreklamazioak aurkeztea gobernu-organoen akordio eta erabakien aurka.
- d) Erakundearen gobernu-organoen bileretan parte hartzea, ordezkarien bitartez.
- e) Lege arauetan, estatutu hauetan eta Erakundearen prestazioen araudian ezarritako gainerakoak.

13. ARTIKULUA. BETEBEHARRAK

Bazkide babesleek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Ezarritako ekarpenak betetzea; hala ere, bazkide babesle batzuek bitartekari gisa jardun dezakete ekarpenak besteen kontura ordainduz.
- b) Erakundearen funtzionamenduan eragina izan dezaketen bazkideei buruzko datuak Erakundeari berari ematea.
- c) Lege, arau eta estatutuetako xedapenak nahiz Erakundeko gobernu-organoen hartutako baliozko erabakiak ere zorrotz betetzen direla zaintzea.

III. KAPITULUA. BAZKIDE OSOAK

14. ARTIKULUA. BAZKIDE OSOAK

Bazkide osoak mota hauetakoak izan daitezke:

- a) Bazkide aktiboak
- b) Etendura egoeran dauden bazkideak
- c) Bazkide pasiboak

15. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOAK

Beren kabuz edo beren izenean jarduten duten bazkide babesleen bidez egindako ekarpen ekonomikoen ondorioz, beraienezko edo onuradunentzako prestazioren bat jasotzeko eskubidea dutenak dira bazkide aktiboak.

Edozein pertsona fisiko izan daiteke bazkide aktibo, baldin eta bi urte egin baditu eta bazkide babesle baten zerbitzura lan egiten badu karrerako edo bitarteko funtzionario, estatutupeko edo bitarteko langile, lan-kontratuko nahiz behin-behineko langile edo goi kargudun gisa.

Egonaldia honela zenbatuko da:

- a) Karrerako funtzionarioen, estatutupeko langileen edo lan-kontratuko langile finkoen kasuan, benetan emandako eta zenbatutako zerbitzuen denbora hirurtekorako antzinatasuna kalkulatzeko erabilitakoa izango da.
- b) Bitarteko funtzionarioen, estatutupeko bitarteko langileen, aldi baterako lan-kontratuko langileen, behin-behineko langileen eta goi-karguen kasuan, izendatuak izan direnetik edo lan-harremana hasi zutenetik emandako denbora; hala, ondorio horietarako artikuluko bigarren paragrafoan deskribatutako edozein modalitatearen bitartez edozein bazkide babesleri emandako zerbitzuak zenbatuko dira.

Bi urteko egonaldia betetzen duen langileak ekarpen orokor baterako eskubidea izango du; hau da, egonaldia bukatu duenean, emandako zerbitzuengatik bere bazkide babesleak dagokion ekarpena jasotzeko eskubidea izango du. Ekarpen hori, gainera, 2004ko ekitaldiko ekarpenetara atzeratuko da gehienez.

16. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOEN ALTA

Bazkide osoek beraien izenean lehen ekarpena egiten duten unean emango dute alta, eta beraien izenean Erakunde honen esparruan zuzenketarik edo ondorengo onarpenik egin gabe integratuta geratuko dira; lan-baldintzak arautzeko araudian ezarritakoa eta hitzarmen kolektibo aplikagarrian adostutakoa bete beharko dute.

Lehen ekarpena formalizatu aurretik eta bazkide babesleei zerbitzuren bat eskainiz bi urteko egonaldian zehar, langileak, bere erabakiz, bazkide oso izaera ez eskuratzeko eskubidea dauka; bazkide babesleari idatziz jakinarazi beharko dio etorkizunean egokituko zaizkion ekarpenei uko egiten diela.

17. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOEN BAJAK

Bazkide oso aktiboek baja hartuko dute honako arrazoi hauengatik:

- a) Bere eskubide ekonomikoak beste aurreikuspen Erakunde batera eramaten badituzte, Erakundearen estatutu hauetan eta prestazioen araudian zehaztutakoaren arabera.
- b) Kanporatuz gero, estatutu hauetako VII. Tituluan ezartzen den prozedurarekin bat etorritik.
- c) Zenduz gero.
- d) Erakundea desegiten bada.

18. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOEN ESKUBIDEAK

Bazkide osoen artean bazkide aktiboek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Erakundearen gobernu-organoen kargu ugarietarako aukeratzea eta aukeratuak izatea, horretarako ezarritako sistemarekin bat etorritik.
- b) Erakundean daukaten egoera zehatzaren berri izatea. Horrez gain, Erakundeari buruzko informazioa eskatu ahal izango dute, idatziz zein ahoz; Gobernu Batzordeak ezingo die ukatu.
- c) Erakundearen parte izatea eta egoera zehatza egiaztatzen duen ziurtagiria eskatzea.
- d) Beste aurreikuspen Erakunde batean onartutako eskubide ekonomikoak Itzarrira bideratzea.
- e) Lege arauetan, estatutu hauetan eta Erakundearen prestazioen araudian ezarritako gainerakoak.

19. ARTIKULUA. BAZKIDE AKTIBOEN BETEBEHARRAK

Bazkide oso aktiboek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Erakundearen gobernu-organoei baliotasunez hartutako erabakiak betetzea.
- b) Bere datu pertsonaletan edo familiari dagozkion datuetan aldaketaren bat egonez gero, eta Erakundearen funtzionamenduan eragina izan badezakete, Erakundeari berari horren berri ematea.
- c) Estatutuetan, arauetan eta lege-xedapenetan ezarritakoa betetzea.

20. ARTIKULUA. ETENDURA EGOERAN DAUDEN BAZKIDEAK

Etendura egoeran dagoen bazkide bihurtuko da bazkide aktibo izanik bazkidea ekarpenik egiten ez den egoera batean baldin badago, bazkide oso gisa borondatezko ekarpenei dagokienez, zein bere izenean bazkide babesleek egindako ekarpenei dagokienez.

Bazkide oso aktiboak etendura egoeran dauden bazkide bihurtuko dira kasu hauetan eta, betiere, horretarako bide ematen duen arrazoiak bazkide oso izaeran baja eragiten ez badu:

- a) Funtzionarioa edo estatutupeko langilea izateari uztea edo lan-harremana iraungitzea, dena delako egoerak bazkideari Erakundearen baja ematea dakarrenean izan ezik.
- b) Bitarteko funtzionarioa, lan-kontratuko bitarteko langilea edo behin-behineko langilea izateari uztea, baldin eta horrek ez badu ekarriko bazkide babesleen esparruan zerbitzu aktibora edo zerbitzuak ematera itzultzea 15. artikuluan ezarritako edozein modalitatetan.
- c) Zerbitzu berezietako egoeran dagoen funtzionarioaren adierazpena, egoera hori eragin duen izendapena bazkide babesleren batek egin duenean izan ezik.
- d) Lan-kontratuko langileen kasuan, nahitaezko eszedentziaren adierazpena, horrek bazkide babesleen esparruan zerbitzuak ematera igarotzea ekarriko ez badu.
- e) Borondatezko eszedentzia, senitartekoak zaintzeko eszedentzia eta borondatezko eszedentzia pizgarriduna aitortzea, baita aplikatu beharreko lan-baldintzen gaineko akordioetan eta hitzarmen kolektiboetan agertzen diren antzeko egoerak aitortzen badira ere. Hala ere, ez da etendura egoeran dagoen bazkide izatera igaroko borondatezko eszedentzia edozein bazkide babesleren esparruan zerbitzuak emateagatik aitortu bada.
- f) Lan-kontratua etetea, aurreko c) letran ezartzen diren kasuetan izan ezik, etendura eragin duen kargu edo postuaren izendapena bazkide babesleen esparruaren barruan baldin badago.
- g) Eginkizunen etendura irmoa.
- h) Zerbitzu aktiboko edo zerbitzu-eginkizunetako egoerara igarotzea beste administrazio publikoren batean edo bere menpekoea den edo horri lotuta dagoen erakunde publiko edo erakunderen batean, baldin eta Erakundearen baja eman behar ez bazaio.

- i) Bazkideak borondatez erabakitzea; horretarako, idatziz jakinarazi beharko dio bazkide babesleari Erakundearen berari egotz dakizkiokeen ekarpenik ez egitea erabaki duela.
- j) Bazkide babesleak baja hartzea, bazkide osoaren eskubideak Erakundearen prestazioen arautegian ezarri bezala mugitzen ez badira.

Ez da etendura egoeran dagoen bazkide izatera igaroko, ordainsaria jasotzea ekarriko duten lizentziak edo baimenak hartzen direnean eta legezko greba egiten denean, edota bazkideak zuzenean borondatezko ekarpenak egiten dizkionean Erakundeari.

Etendura egoeran dauden bazkideek bazkide oso aktiboek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte; salbuespen izango da estatutu hauetako 28. artikuluan eskubide ekonomikoak borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste Erakunde batera mugitzeari dagokionez, kasu horretan eksklusiboki etendura egoeran dauden bazkideen eskubidea izango baita.

21. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOAK

Bazkide aktiboak izan ondoren, prestazioaren zuzeneko titular bihurtu direnak Erakundeko bazkide pasiboak izango dira, subjektu babestu gisa, dena delako kontingentzia gertatu ondoren.

22. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOEN ALTAK

Bazkide pasibo gisa aitortzeko, beharrezkoa da Erakundearen prestazioen araudian eta estatutuetan jasotzen diren prestazioak ordaintzeko gertakaria jasotzea.

23. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOEN BAJA

Bazkide pasiboek baja emango zaie Erakundearen honakoren bat gertatzen denean:

- a) Prestazioak jasotzea agortuz gero.
- b) Kanporatuz gero, estatutu hauetako VII. Tituluan ezartzen den prozedurarekin bat etorritik.
- c) Zenduz gero.
- d) Erakundea iraungiz gero.

24. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOEN ESKUBIDEAK

Bazkide pasiboek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Erakundearen prestazioen araudian ezarritako baldintzetan dagokien prestazioa jasotzea.
- b) Erakundearen daukaten egoera zehatzaren berri izatea.
- c) Erakundearen parte izatea egiaztatzeko ziurtagiria eskatzea.
- d) Beste aurreikuspen Erakunde batean onartutako eskubide ekonomikoak Itzarrira bideratzea.
- e) Lege arauetan, estatutu hauetan eta Erakundearen prestazioen araudian ezarritako gainerakoak.

25. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBOEN BETEBEHARRAK

Bazkide pasiboek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Erakundearen gobernu-organismoek baliotasunez hartutako erabakiak betetzea.
- b) Bere datu pertsonaletan edo familiari dagozkion datuetan aldaketaren bat egonez gero, eta Erakundearen funtzionamenduan eragina izan badezakete, Erakundeari horren berri ematea.
- c) Prestazioa gertatzerakoan, jakinaren gainean egoteko eta ordaintzeko beharrezko dokumentazio guztia bidaltzea.
- d) Erakundeari jakinaraztea nola ordaindu nahi duten prestazioa.
- e) Estatutuetan, arauetan eta lege-xedapenetan ezarritakoa betetzea.

IV. KAPITULUA. ONURADUNAK

26. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Onuradun bihurtuko dira bazkide oso aktiboaren, pasiboaren edo etendura egoeran dagoen bazkidearen kausadun izanik Erakundearen aurrean eskubide ekonomikoen hartzekodun direnak. Hil den bazkide osoak onuradunak izendatzeko dokumentuan

adierazitako pertsonak izango dira, eta modu horretan inor adierazi ez bada, honako lehentasun ordena hau jarraituko da:

1. Ezkontidea edo izatezko bikotekide erregistratua
2. Seme-alabak
3. Aurreko ahaideak
4. Neba-arrebak
5. Oinordeko legalak

27. ARTIKULUA. ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Onuradunek bazkide oso pasiboan eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte.

III. TITULUA: ESKUBIDE EKONOMIKOAK MUGITZEA

28. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEN BESTE ERAKUNDE BATERA MUGITZEA

Bazkide oso aktiboek eta pasiboek ezingo dituzte borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste Erakunde batera mugitu beren alde Erakunde onartuta dituzten eskubide ekonomikoak.

1. Etendura egoeran dauden bazkide osoak

Etendura egoeran dauden bazkide osoek, nahitaezko edo borondatezko eszedentzia egoeran ez badaude, eskubide ekonomikoak mugitzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, bazkide babesleekin estatutu bidez edo lanaren bidez duten harremana bukatu ondoren.

Eskubideen mugimendua —eskubide guztiena izan beharko du — lehentasunez beste enplegu-plan batera egingo da, eta, hala ez denean, beste edozein aurreikuspen-planera, betiere betetzen baditu jatorrizko BGAren estatutuetan aurretiaz ezarri diren prestazioak kobratzeko moduaren gaineko baldintzak eta ezaugarriak.

Eskubide ekonomikoak mugitzeko helburuzko borondatezko gizarte aurreikuspeneko Erakundeak ezin du izan horien erreskate eskubidea onartuta, ezta onartzen duen beste Erakunde batera mugitzeko aukera ere.

2. Onuradunak

Hala nahi duten onuradunek eskubide ekonomikoak borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste Erakunde batera edo Itzarrira mugitzeko eskubidea baliatu ahal izango dute aldi berean Erakundeko bazkide oso baldin badira.

29. ARTIKULUA. BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEN BESTE ERAKUNDE BATETIK ITZARRIRA MUGITZEA

Bazkide aktiboek, pasiboek edo etendura egoeran dauden bazkideek gizarte aurreikuspeneko beste plan batean onartuta dauzkaten eskubide ekonomikoak Itzarrira mugitzeko eskaera egin ahal izango dute, osorik edo partzialki.

IV. TITULUA: ARAUBIDE EKONOMIKOA

30. ARTIKULUA. SISTEMA FINANTZARIO ETA AKTUARIALA

Erakundearen finantza sistema banakako kapitalizazio finantzarioa izango da.

Erakundeak ez du bere gain hartuko aurreikusitako prestazioei lotutako inolako arriskuren estaldurarik.

31. ARTIKULUA. ERAKUNDEAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

Erakundearen baliabide ekonomikoak honako hauek eratuko dituzte:

- a) 50.000 euroko mutua-funtsa, bazkide sustatzaileen, bazkide babesleen ekarpenekin edo gizarte ekitaldien gerakinekin eratutakoa.
- b) Erakundearen erreserba finantzarioak. Erakundeak funts osagarriak izan beharko ditu beti, hornidura teknikoak gauzatzeko baliatutako aktiboen gehigarri izango diren aktiboetan gauzatuta. Aktibo horiek aurreikus daitekeen edozein konpromisotatik kanpo egongo dira, eta aurreikusitako gastu eta prestazioen eta benetakoen arteko desbideratzeak xurgatzeko segurtasun-marjina izango dira. Aipatutako segurtasun marjina hori xedapen libreko erreserben kargura eratu ahalko da.
- c) Bazkide babesleen eta bazkide osoen ekarpenak.
- d) Errentak, sarrerak edo Erakundearen ondarea kudeatuz lortutako beste edozein etekin.

- e) Gizarte aurreikuspeneko beste plan batzuetatik eratorritako eskubide ekonomikoak lekualdatzea eta mugitzea.
- f) Diru-laguntzak, dohaintzak, legatuak edo beste edozein sarrera edo ondasun, Erakundeak jasotakoa.

32. ARTIKULUA BAZKIDEEN ESKUBIDE EKONOMIKOAK

Banakako ondarea eskubide ekonomikotzat jotzen da, baldin eta banakako ondare hori bazkide osoek edo bazkide babesleek emandako ekarpenen bidez, inbertitutako baliabideen kudeaketan sortutako plusbalio eta etekinen bidez edo lekualdatzeen bidez eratu bada, sortutako gastuei eta galerei erreparatuta, halakorik baldin badago.

33. ARTIKULUA. BAZKIDEEN EKARPENEN ARAUBIDEA

Erakundeko bazkide babesleek egindako ekarpenak beren ordainsari finkoen eta aldizkako ordainsarien arabera egotziko zaizkie bazkide osoei.

Bazkide babesleen ekarpenak hileroko egingo dira, benetan ordaindutako ordainsarien proportzioan, amatasuna, haurdunaldiaren ondoriozko arrisku eta aldi baterako ezintasunen ondorioz jasotako prestazio ekonomikoak barne.

Bazkide osoek, gainera, borondatezko ekarpenak egin ahalko dituzte. Gobernu Batzordeak ekarpen horiek egiteko ereduak, epeak eta zenbatekoak arautuko ditu.

Oro har, bateraezina da erretiroa hartzeko ekarpenak egitea eta, aldi berean, kontingentzia horri dagozkion prestazioak kobratzea. Erretiroa hartzeko sarbidetik aurrera, bazkide oso pasiboek Erakundeari ekarpenak egiten jarraitzeko aukera izango dute. Hala ere, Itzarri BGA Eren erretiro-prestazioa kobratzen hasi ondoren, ekarpenak ezingo dira bideratu erretiro horren estaldurara.

Erretiroa hartu duen pertsonak Erakundetik erretiroari dagokion prestazioa kobratzen badu, eta bazkide babesleren batentzat berriz ere lan egiten badu, orduan Itzarrira egindako ekarpenei heldu ahalko zaie berriz ere, etorkizuneko erretiro kontingentziarako, betiere ordura arte kobratzen zuen erretiro prestazioa kobratzeari uzten badio.

Erretiro kontingentziari dagokion prestazioa kobratzen hasi diren bazkide pasiboek, erretiro partzialeko araubidean daudelako, Itzarrira ekarpenak egiten jarraitu ahal izango dute, eta erabateko erretiroa hartzeko unean kobratu.

34. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO GASTUAK

Erakundearen funtzionamendu, administrazio eta kudeaketarako beharrezko gastuak indarrean dagoen lege araudian ezarritakora egokituko dira.

Aplikatu beharreko ehunekoa Erakundearen prestazioen araudian ezarriko da. Ehuneko hori aldatu ahal izango da, Erakundearen Gobernu Batzordearen erabakiz, prestazioen araudian ezarritako baldintzetan.

35. ARTIKULUA. ONDAREAREN INBERTSIOA

Erakundearen funtsak gobernu-organoek edo horretarako izendatutakoek modu bateratuan kudeatu eta inbertituko dituzte, inbertsio printzipioen adierazpenean azaldutako segurtasun, likidezia, errentagarritasun eta epeen kongruentzia irizpideekin bat etorriz; bidenabar, ehunekoei eta balio tipoei dagozkien betekizunak bete beharko dira, legez ezarrita egonez gero, eta ondoren Batzar Nagusiari jakinaraziko zaizkio, bazkide osoen eta onuradunen intereserako egindako inbertsioak zainduz.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen ekonomiko eta sozialera bideratutako irizpide estrategikoak aintzat hartuko dira, baita inbertsioaren jomuga izango diren enpresen kalitate etikoa ere.

36. ARTIKULUA. BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA

Erakunde gobernu-organoek, beharrezkotzat jotzen dutenean edo lege-arauak hala eskatzen duenean, azterlan ekonomiko bat eskatu ahal izango dute, sortutako eskubideen eta egindako ekarpenen artean finantza-oreka dagoela egiaztatzeko.

37. ARTIKULUA. FUNTSEN KOKAPENA

Ekarpenak zein Erakundeak dituen gainerako funtsak Gobernu Batzordeak adierazitako Erakunde finantzarioan izango da; ondoren, horren berri eman beharko dio Batzar Nagusiari.

38. ARTIKULUA. URTEKO KONTUAK, KUDEAKETA TXOSTENA ETA AUDITORETZA

Erakundearen ekitaldi ekonomikoak urte naturalarekin bat etorriko dira.

Ekitaldi bakoitzeko lehen lau hilabeteetan zehar Erakundeak honako hau egin beharko du:

- a) Erakundearen urteko kontuak eta aurreko ekitaldiko kudeaketa-txostena egin, eta dokumentu horiek aurkeztu, Batzar Nagusiaren onespena jasotzeko.

- b) Adituek edo aditu independenteen sozietateek egindako auditoretza-txostenak lortzea; txostenek legez ezarritako betekizunak bete beharko dituzte. Kontu-ikuskaritzaren txostenak kontabilitate, finantza eta aktuario alderdiak jaso behar ditu, eta berariaz aipatu beharko dute borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen arautegian ezartzen dena betetzen ote den.
- c) Aurreko puntuetan aipatutako informazioa Eusko Jaurlaritza barruan arlo horretako eskumena duen sailaren aurrean aurkeztea

V. TITULUA: PRESTAZIOAK

Erakundeak kobratzeko eskubidea onartzen baldin bada estatutu hauek indarrean sartu eta gero, orduan eskubide horiei dagozkien prestazioak araudi honen arabera arautuko dira.

Prestazio bat eskatu dela joko da Itzarrik eskatutako dokumentazio guztia aurkezterakoan.

39. ARTIKULUA. PRESTAZIO MOTAK

Prestazioek Erakundeko bazkide pasiboen edo onuradunen aldeko eskubide ekonomikoak aitortzen dituzte, Erakundeak aintzat hartutako gertakari edo gertakizunen bat gertatzen bada.

Estalitako kontingentziak honako hauek dira:

- a) Erretiroa.
- b) Ezintasun iraunkorra.
- c) Iraupen luzeko langabezia.
- d) Heriotza.

Horretarako eskubidea duen bazkide pasiboak edo onuradunak eskaera idatziz egin ondoren emango dira prestazioak, kasuan kasuko dokumentazioarekin batera. Erakundeko langileek, bertako gobernu-organismoek ezarritako irizpideei erreparatuz, egindako prestazioen ordainketak kudeatu eta ordainaraziko dituzte.

Bazkide pasiboek edo onuradunei ordaindutako prestazioak estatutu hauetan, Erakundeko prestazioen araudian eta lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Itzarrik ez du aurreikusi eskubide ekonomikoak erreskatatzeko eskubidea.

40. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN BATERAGARRITASUNA

Erakundearen prestazioak bateragarriak dira bazkide pasiboek eta onuradunek beste Erakunde batzuetatik (publiko zein pribatu) izan ditzaketen beste prestazio batzuekin, Gizarte Segurantzaren barne; ez dira prestazio publiko gisa hartuko eta ez dira zenbatuko prestazio publikoen gehienezko prezioen mugatik eratorritako mugaren ondorioetarako.

41. ARTIKULUA. PRESTAZIOETARAKO ESKUBIDEA

Erakundeko bazkide pasiboek eta onuradunek estatutu hauetan ezarritako prestazioetarako eskubidea izango dute, Erakundeko prestazioen araudiak prestazio bakoitzerako eta prestazioaren onarpenean ezarritakoarekin bat etorritik.

VI. TITULUA: ERAKUNDEAREN GOBERNU-ORGANOAK

42. ARTIKULUA. GOBERNU-ORGANOAK

Erakundearen gobernuak, oro har, organo hauen bitartez gauzatuko da:

- a) Batzar Nagusia.
- b) Gobernu Batzordea.

43. ARTIKULUA. GOBERNU-ORGANOETAKO KIDE IZATEKO BETEKIZUNAK

Gobernu-organoko kide izateko honako hiru behar da:

- a) Erabateko eskubide zibil eta politikoak izatea.
- b) Aukeratua edo izendatua izatea.

II. KAPITULUA. BATZAR NAGUSIA

44. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA: DEFINIZIOA ETA OSAERA

Batzar Nagusia Erakundearen gobernu-organoko gorenak da, eta bazkide babesleen eta bazkide osoen ordezkariak paritario batek osatzen du, modu honetan banatuta:

- a) Bazkide babesleen partetik, 50 ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak izendatutakoak.

- b) Bazkide osoen partetik 50 ordezkari, kasuan kasuko sindikatu erakundeek izendatutakoak, langileen batzordeetan, enpresa batzordeetan eta langileen ordezkariari dagokienez horietako bakoitzak duen kopuruaren arabera proportzionalki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren esparruan.

Bazkide babesleek Batzar Nagusian dituzten ordezkariak ez dira Erakundeko bazkide oso izan behar.

Batzar Nagusiko kide izateak ez du sorraraziko inolako soldata eskubiderik.

45. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIOAK

Batzar Nagusiaren funtzioak honako hauek izango dira:

1. Gobernu Batzordea eratu behar duten kide titularrak izendatzea, baita bertan sor daitezkeen leku hutsak betetzea ere, estatutu hauetako 56. artikulua adierazitakoaren arabera izendatuak izan ondoren.
2. Hala badagokio, Erakundearen kudeaketa txostena eta urteko kontuak aztertzea eta onartzea, Gobernu Batzordeak aurkeztu ondoren.
3. Hasierako onespina jaso duten estatutuak berrestea eta estatutu horien ondorengo aldaketak onartzea.
4. Erakundea borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste Erakunde batzuekin batzea edo banatzea ebaztea, eta Erakundea desagitea erabakitzea.
5. Mutua funtsera egin beharreko derrigorrezko ekarpen berriak adostea, baita horiek berriz ordaintzea ere.
6. Gobernu Batzordeko kideen aurrean erantzukizun ardurak garatzea.
7. Erakundearen ikuskariak izendatzea.
8. Gobernu Batzordeak aurkeztutako iradokizun guztiak aztertzea, Erakundearen onerako baldin badira, eta horien gainean erabakitzea.
9. Erakundeko bazkideek jar ditzaketen errekurtsoen berri jasotzea.
10. Indarrean dauden lege-xedapenak eta estatutu hauetan ezarritako beste funtzio oro.

46. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN SAIOEN MODALITATEAK, DEIALDIA ETA QUORUMA

Batzar Nagusiak ohiko bilkurak eta bilkura bereziak egingo ditu.

Batzar Nagusia, ohiko zein ezohiko bilkuran, Gobernu Batzordeko presidentek deituko du, bazkide babesleen ordezkarietara eta bazkide osoen ordezkarietara bideratutako komunikazio baten bitartez; gutxienez bilera egin baino 10 egun baliodun lehenago igorriko da, eta gehienez 30 egun natural lehenago; bileraren data, ordua eta lekua adierazi beharko dira, eta kasuan kasuko gai-zerrenda ere bidali beharko da.

Komunikazio pertsonala ezinezkoa bada, orduan, beharrezko publizitatea emango zaio, horren berri izan dezaten.

Batzar Nagusiko ordezkarien gutxienez % 10ek eskatutako gaiak gai-zerrendan jasoko dira. Eskaera bilkura hasi baino gutxienez 5 egun lehenago egin beharko da.

Bilkuretan ezingo da aztertu gai zerrendan agertzen ez den gairik.

Batzar Nagusia, ohiko zein ezohiko bilkuran batuta, lehen deialdian modu baliagarrian eratuko da, kideen erdia gehi bat bertaratuz gero. Kopuru horretara iristen ez bada, modu baliagarrian eratuko da bigarren deialdian bertaratutako kideen kopurua edozein dela ere; bigarren deialdia leku berean ordubete geroago izango da.

Bazkide babesleen edo bazkide osoen ordezkarietara botoa organo horretako beste ordezkari bati laga ahalko diote; horren berri idatziz eman beharko diote Erakundeko Gobernu Batzordeko idazkaritzari edo presidentziari, bilkura egin aurretik.

Ohiko Batzar Nagusia ekitaldi bakoitza itxi eta lehendabiziko lau hilabeteetan egingo da; batzar horretan, Gobernu Batzordearen kudeaketa, kudeaketa txostena, urteko kontuak eta gai zerrendako gainerako gaiak aztertuko dira, eta, hala badagokio, onartu.

Batzar Nagusiaren ezohiko bilera Gobernu Batzordeak hala eskatuta edo gutxienez Batzar Nagusiko ordezkarien % 20k eskatuta deituko da.

Erakundeko talde kudeatzaileko ordezkarietara Batzar Nagusiaren bileretan parte hartu ahal izango dute; hitz egiteko aukera izango dute, baina ezingo dute bozkatu.

47. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK

Gaiak indarrean dagoen araudian ezarritako gehiengoz erabakiko dira; berdinketarik egonez gero, presidentearen botoak ebatziko du.

Estatutuak aldatzeko eta Erakundea batzeko, banatzeko eta desegiteko erabakiak hartze aldera, emandako botoen bi herenen gehiengoa beharko da.

Batzar Nagusiak modu baliagarrian hartutako erabakiak derrigorrezkoak dira Erakundearen gobernuari eta elementu pertsonal guztiei dagokienez.

Edozein bazkidek Batzar Nagusiaren erabakien aurka egiteko eskubidea izango du, legeen aurkakoak baldin badira, estatutuei aurka edo kalte egiten badie, bazkide baten edo batzuen onerako baldin badira, BGAEn interesen eta bazkide oso edo onuradunen onerako.

Batzar Nagusiaren akten liburu bat osatuko da, indarrean dauden xedapenen arabeko diligentzia egokiei jarraituz.

48. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIKO PRESIDENTZIA

Gobernu Batzordeko presidentea izango da Erakundeko Batzar Nagusiko burua eta, hura ez bada, Batzar Nagusiak berak izendatutako pertsona. Hari dagokio eztabaidak bideratzea eta lege formalitateak betetzen direla zaintzea.

Erakundeko Batzar Nagusiko idazkari lanak egingo ditu Gobernu Batzordean izaera hori daukanak, eta, horrelakorik ezean, Batzar Nagusiak berak izendatutako pertsonak.

49. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIEN ERABAKIEN ERREGISTROA

Erakundeko Batzar Nagusiaren erabakiak aktan jasoko dira; akta idazkariak egingo du, eta akta liburuan idatziko du. Akta Batzar Nagusiak berak onartu ahal izango du, batzarra egin ondoren, edo, bestela, presidenteak eta batzarrean bertan izendatutako bi kidek onartuko dute, idazkariarekin batera sinatuta, hogeita hamar eguneko epean.

50. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIKO ORDEZKARIAK ORDEZKATZEA, LEKU HUTSAK BETETZEA ETA IRAUPENA

Ordezkariek lau urterako izendatuko dira, baina jarraitzeko aukera izango dute.

Leku hutsak geratuz gero, utzi duen ordezkaria izendatu zuen erakundeak edo elkarteak aukeratu ahal izango du ordezkari berria.

Ordezkarri jakin bat izendatu zuen erakundeak ordezkarria ordezkatzea erabaki ahalko du.

Aurreko bi paragrafoetan zehaztutako kasuetan, izendapen berriek ondorioak izango dituzte harik eta artikulua honetako lehen paragrafoan ezarritako aldia bukatu arte.

Bazkide babesleek eta kontingentzia horretako sindikatu erakundeen komunikazioa egin eta gehienez 60 egun naturaleko epean izendatu beharko dira ordezkarriak. Epe hori betetzen ez bada, galdu egingo da ezarritako ordezkaritza, eta hutsik geratutako lekuak Gobernu Batzordeak banatu ahal izango ditu.

II. KAPITULUA. GOBERNU BATZORDEA

51. ARTIKULUA. DEFINIZIOA ETA OSAERA

Erakundearen ordezkaritza eta zuzendaritza arduratu behar den organoa da Gobernu Batzordea, eta Batzar Nagusiari ez dagozkion ahalmenak baliatzen ditu horretarako.

Gobernu Batzordea hamasei kidek osatuko dute (presidentea, presidenteordea, idazkaria eta hamahiru kide); zortzi kide bazkide babesleen ordezkarriak izango dira, eta zortzi, berriz, bazkide osoen ordezkarriak.

Ordezkariek ez dute nahitaez Erakundeko bazkide oso izan behar.

52. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN FUNTZIOAK

Honako eskumen eta ahalmen izango ditu, besteak beste:

1. Erakundearen ordezkaritza eta gobernua izatea mota guztietako aginte eta jurisdikzioaren aurrean.
2. Erakundearen ondarea kudeatzea eta administratzea, baita Erakundearen garapen ekonomiko egokirako beharrezkoak diren ekintza guztiak ere; helburu hori betetzeko hirugarren pertsonekin kontratuak egin ahalko dituzte.
3. Estatutu hauetan eta Erakundeari aplikatu beharreko bestelako testu orokorretan jasotako aginduak betetzea eta betearaztea.
4. Batzar Nagusiari kudeaketa txostena eta urteko kontuak aurkeztea, onartzeko.
5. Erakundeko zuzendari nagusia izendatzea eta kargugabetzea.

6. Batzar Nagusiari Erakundea pareko beste Erakunde batzuekin batzea, banatzea, likidatzea edota desegitea proposatzea.
7. Erakundearen gizarte aurreikuspeneko planak integratzea edo sortzea aztertzea eta onartzea.
8. Aktuario funtzioei, kanporatzeari, barne ikuskaritza eta arriskuen kudeaketa funtzioei dagokienez politika idatziak hartzea. Gobernu Batzordearen ardura izango da politika horiek ezartzea; urtero berrikusiko dira, eta egokitu egingo dira erakundearen sisteman edo arlo bakoitzean aldaketa garrantzitsuren bat gertatzen denean.
9. Gobernu Batzordeak zehaztuko ditu ordainsari politikaren printzipio orokorrak, erakundearen arrisku profilean eragina duten jarduerak egiten dituzten langile kategoriei dagokienez, eta zuzen aplikatzen direla kontrolatuko du.
10. Erakundearen prestazioen araudia aldatzea.
11. Batzar Nagusiari espresuki eman ez zaizkion gainerako ahalmenak.

Aipatutako ahalmenak ez dira mugatzaileak, adierazpen hutsak dira; hala, Gobernu Batzordeari dagozkio sozietatearen ordezkaritza, administrazio- eta gobernu-ahalmen zabalenak, Erakundearen interesak babesteko eta kudeaketa hoberako komenigarritzat jotako ahalmen guztiak barne. Hartara, Gobernu Batzordeak bere kargua arduraz garatuko du, eta negligentsia larri edo ahalmenen abusuen ondorioz sor daitezkeen kalteen aurrean erantzun egingo du.

Gobernu Batzordeko kideak kudeaketaren arduradunak dira Batzar Nagusiaren aurrean, eta horren aurrean kontuak argitu beharko dituzte; hala, dagokien kargua dela medio, sekretu profesionala gorde beharko dute, derrigorrez. Betebehar hori betetzen ez duten kideak kargutik kenduko dira, Gobernu Batzordeak berak espedientea eman ondoren.

53. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN FUNTZIOAK

Gobernu Batzordeko presidentearen funtzioak honako hauek dira:

- a) Gobernu Batzordea ordezkatzeko.
- b) Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen bileren buru izatea.
- c) Gobernu Batzordearen bilkuretarako gai-zerrenda prestatzea eta bilera deitzea.

- d) Oro har, Erakundearen jarduna zuzentzea.
- e) Estatutu hauetatik eta gainerako lege-xedapenetatik ondorioztatutako funtzio oro.

Gobernu Batzordearen presidenteordearen funtzioak honako hauek dira:

- a) Presidentea ordezte, presidentea ez badago, gaixorik badago edo hala eskatzen duen beste edozein egoera gertatuz gero.
- b) Gobernu Batzordeak agindutako funtzio oro.

Gobernu Batzordearen idazkariaren funtzioak honako hauek dira:

- a) Erakundeko gobernu-organoen saioen aktak idaztea, presidentearen onespenearekin, eta saio horietan hartutako erabakien ziurtagiriak idaztea.
- b) Oro har, Gobernu Batzordeak agintzen dizkion gainerako eginkizunak egitea. Idazkaria ez badago, Gobernu Batzordean bazkide osoen ordezkari gazteenak ordezkatu du.

Gobernu Batzordeko kideen funtzioak honako hauek dira:

- a) Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen bileretara joatea, eta eztabaidetan eta hartzen diren erabakietan parte hartzea.
- b) Oro har, Gobernu Batzordeak agindutako gainerako eginkizunak egitea.

54. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN DEIALDIA

Gobernu Batzordea presidenteak deituko du, bildu baino gutxienez zazpi egun natural lehenago egingo du deialdia, idatziz eta dagokion gai zerrendarekin batera. Premiazko bada eta Presidentziak eskatuta, bilera egin baino hiru egun natural lehenago egin ahalko da deialdia.

Gobernu Batzordea baliotasunez eratzeko, batzordeko kideen erdiak eta bat gehiago bertaratu beharko dira, izan kideak, izan horien ordezkariak.

Gobernu Batzordeko kideen gutxienez heren batek eskatutako gaiak gai zerrendan jasoko dira. Eskaera Gobernu Batzordea bildu baino gutxienez bost egun lehenago egingo da.

55. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK

Erakundearen Gobernu Batzordearen erabakiak, Erakundearen prestazioen araudia aldatzeari buruzkoak barne, emandako botoen gehiengo sinplez hartuko dira; berdinketak baldin badaude, presidentearen botoak ebatziko du.

Erakundearen gizarte aurreikuspeneko planak sortu edo integratzeari lotutako erabakiak hartzeko beharrezkoa izango da emandako botoen bi herenen gehiengoa eskuratzea.

Bazkide babesleen edo bazkide osoen ordezkariak botoa organo horretako beste ordezkari bati laga ahal izango diote, Erakundearen horren berri idatziz emanaz gero, eta izaera bereziarekin batzorde bakoitzerako, batzordea bildu aurretik.

Dagokion akten liburua egingo da.

56. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA, IRAUPENA, LEKU HUTSAK ETA ORDEZKAPENA

Bazkide babesleen Batzar Nagusiko ordezkariak aukeratuko dituzte bazkide babesleei dagozkien Gobernu Batzordeko ordezkariak.

Bazkide osoen Batzar Nagusiko ordezkariak aukeratuko dituzte bazkide osoei dagozkien Gobernu Batzordeko ordezkariak, batzar horretako sindikatu elkarte bakoitzaren ordezkari kopuruaren proportzioan. Nolanahi ere, ordezkariak handiena daukaten sindikatu elkarteek Gobernu Batzordeko presentzia daukatela bermatuko da.

Bazkide babesleen ordezkariak Gobernu Batzordeko presidentea eta presidenteordea haien artetik aukeratuko dituzte.

Bazkide osoen ordezkariak Gobernu Batzordeko idazkaria haien artetik aukeratuko dute.

Gobernu Batzordeko kideak estatutu hauetan ezarritako prozeduraren bidez aukeratuko dira, lau urteko agintaldirako, eta berriz ere aukeratuak izan ahal izango dira.

Aurreko atalean ezarritako aldiaren hutsik gera daitezkeen lekuak betetzeko proposamena joandako kideak ordezkatzeko duen erakundeak edo elkarteak egingo du.

Ordezkatzen duten erakundeek hala erabakiz gero, ordezkariak aldatu ahal izango dira.

Aurreko bi paragrafoetan zehaztutako kasuetan, izendapen berriek ondorioak izango dituzte harik eta artikulua honetako bosgarren paragrafoan zehaztutako aldia bukatu arte.

57. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA NAGUSIA ETA BERE FUNTZIOAK

Gobernu Batzordearen erabateko eta zuzeneko kontrolpean, zuzendari nagusi baten zerbitzuak kontratatu ahalko dira, batzordeak eskuordetutako botere eta ahalmenak izango dituen. Indarrean dagoen legediak aurreikusitako kasuetan egin ahalko da.

Erakundearen zuzendaritza benetan daramatenek edo funtsezko funtzioak egiten dituztenek kualifikazio profesional, ezagutza eta esperientzia egokiak izango dituzte, erakundearen kudeaketa ona eta zuhurra dela eta funtsezko funtzioak egoki egiten direla segurtatzeko.

Horrez gain, pertsona horiek ohoragarriak izan beharko dira, hau da, jarrera pertsonal eta profesional egokia izan duten pertsonak.

Zuzendari nagusiak talde profesional bat izango du, eta honako funtzio hauek izango ditu, besteak beste:

1. Erakundearen xedeaosatzen duten jarduera guztien funtzionamendua zuzentzea, planifikatzea, koordinatzea eta kontrolatzea.
2. Erakundearen administrazio eta kontabilitate eragiketa guztiak antolatzea eta kudeatzea, araz izan beharreko erregistro eta liburuen bitartez.
3. Aldizka gobernu-organoen aurrean aurkeztu beharreko informazio ekonomiko eta finantzarioa prestatzea.
4. Ordaindutako prestazioak eta egindako ekarpenak jakitea eta kontrolatzea.
5. Existitzen diren konpromiso legal eta fiskalak betetzeko beharrezko informazioa prestatzea.
6. Erakundeko gobernu-organismoek agindutako finantza eragiketarako egitea.
7. Gobernu Batzordeak kolaboratzaile tekniko edo administrazioko kolaboratzaile gisa kontratatutako adituen elkarrekin egindako lanak ezagutzea eta aztertzea.
8. Ikuskariekin kolaboratzea, dagozkien funtzioak garatzen, beharrezkoa bada.
9. Likidazio Batzordearekin kolaboratzea, dagozkien funtzioak garatzen, beharrezkoa bada.
10. Erakundearen zerbitzu guztien arduraduna izatea.
11. Gobernu Batzordeak esleitutako bestelako funtzio guztiak garatzea.

VII. TITULUA: DIZIPLINA-ARAUBIDEA

58. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK

Bazkide sustatzaileak, bazkide sustatzaileek, Erakundeko gobernu-organoetako kideek, Likidazio Batzordeko kideek, zuzendaritza nagusiak, kudeaketa taldeak, bazkide osoek eta onuradunek erantzukizuna haien gain hartu beharko dute titulu honetan ezarritakoaren haritik Erakundeari kalte egiten dioten arau-haustek eginez gero.

59. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN MOTAK

Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste arinak hauek izango dira:

- a) Estatutu, araudi edo funtzionamendu arauetako aginduak ez betetzea, ignorantzia saihestezinagatik.
- b) Bazkide osoen kasuan, helbide aldaketa Erakundeari ez jakinaraztea.

Arau-hauste larriak hauek izango dira:

- a) Bazkide osoen kasuan, bazkideen edo onuradunen egoeren edozein aldaketa Erakundeari ez jakinaraztea, jaso beharreko prestazioetan eragina izan badezake.
- b) Artikulu honetako aurreko atalean definitutako arau-haustek bi urteko epean berriz ere egitea.

Arau-hauste oso larriak hauek izango dira:

- a) Bazkide osoen kasuan, Erakundeari gastuak edo prestazioak eragiten dizkion edo diezazkion edozein motatako gaixotasun edo istripu simulatzea, eragitea edo nahita edo asmo txarrez larriagotzea.
- b) Horretara bideratzeko bitartekoak borondatez jartzea edo horiekin iruzur egitea, Erakundearen interesen kalterako.
- c) Atal honetan arau-hauste larritzat jotako edozein berriz egitea, bi urteko epean.

60. ARTIKULUA. ZEHAPENAK

Aurreko artikuluan adierazitako arau-hausteen ondorioz ezar daitezkeen zehapenak, oro har, honako hauek izan ahalko dira:

Arau-hauste arinak izanez gero: ahozko edota idatzizko ohartarazpena.

Arau-hauste larriak izanez gero:

- a) Ohartarazpen publikoa, Gobernu Batzordeak ezarritako publizitate mailarekin, zehapena eredugarria izan dadin.
- b) Zehapen ekonomikoa; zenbatekoa Gobernu Batzordeak erabakiko du; gehienez kuoten urteroko bat.
- c) Prestazioak partzialki etetea, gehienez hilabetez.

Arau-hauste oso larriak izanez gero:

- a) Prestazioak partzialki edo erabat etetea, gehienez sei hilabetez.
- b) Bidegabeki jasotako zenbatekoak berriz bueltatzea eta Gobernu Batzordearen erabakiz aplikatu beharreko zehapen ekonomikoa; egindako arau-haustearen larritasunaren arabera, gehienez aipatutako zenbatekoak halako hamar izan ahalko da. Horrez gain, Erakundetik kanporatzea ere erabaki ahal izango da.
- c) Arau-hausteak ez badu balorazio ekonomikorik jaso, orduan Gobernu Batzordeak zehaztutako zenbatekoa izango duen zehapena jarriko da, gehienez kuoten bi urteko kopuruarekin; horrez gain, Erakundetik kanporatzea ere erabaki ahalko da.
- d) Kanporatzea.

61. ARTIKULUA. PROZEDURA

Zehapenak jartzeko prozedura arau hauen arabera izango da:

1. Ofizios edo salaketaz hasiko da, Erakundeak zehapena jaso dezakeen balizko gertaera baten berri daukanean.
2. Presidentziak kargu-orria prestatuko du, interesdunari jakinaraziko dio, eta horrek idatziz eta hamabost egun naturaleko epean erantzun ahal izango du, jasotzen

duen unetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren, presidentziak lehen instantzia ebatziko du.

3. Interesdunak zehapenari buruzko errekurtsua aurkeztu ahal izango du Gobernu Batzordearen aurrean; azken horrek kalifikazioa berretsi edo aldatu egingo du.
4. Ezarritako zehapena kanporatzea baldin bada, zehatutako subjektuak errekurtsua aurkeztu ahalko du, azken instantzia gisa, Batzar Nagusiaren aurrean, zehapena jakinarazten den unetik hilabeteko epean. Batzar Nagusiak dagokiona ebatziko du hurrengo bilkuran. Errekurtsua aurkeztu izanak ez du, inolaz ere ez, kasu horretako zehapenaren eraginkortasuna etengo.

62. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN PRESKRIPZIOA ETA EPEAK

Aurreko artikuluan aurreikusitako errekurtsuak aurkezteko epea 30 egunekoa izango da erabakia interesdunari jakinarazten zaion datatik zenbatzen hasita.

Arau-hauste arinak egiten direnetik lau hilabeteko epean preskribituko dira; arau-hauste larriak, berriz, sei hilabeteko epean, eta arau-hauste oso larriak, ostera, hamabi hilabeteko epean.

63. ARTIKULUA. GAUZATZEA

Zehapen guztiek, kanporatzea salbu, kasuan kasuko errekurtsuen epea iraungi eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak, espedientatuak eskubidea baliatu gabe, edo kasuan kasuko epai tinkoa eman eta hurrengo egunetik aurrera.

64. ARTIKULUA. EZEREZTEA

Gobernu Batzordeak ezarritako zehapenak urtero baliogabetu ahalko ditu, bazkideei emandako zehapenen oharpenak baliogabetuz, eta Erakundearekiko betebeharrak betetzeko gaituz.

VIII. TITULUA: ERREKLAMAZIOAK

65. ARTIKULUA. ERREKLAMAZIOAK EGITEKO PROZEDURA

Bazkide oso eta onuradunek erreklamazio- edo argitze-idatzia aurkezteko eskubidea daukate, Erakundearen Gobernu Batzordera zuzendutakoa; gutxienez honako hau izan beharko du:

- a) Eskatzailearen, eta, hala badagokio, ordezkaten duen pertsonaren identifikazioa; halaber, eskatutako informazioa lehentasunez nola jaso nahi duen eta non azaldu beharko du.
- b) Eskatzen duen erreklamazio edo azalpena adieraztea.
- c) Lekua eta eguna.
- d) Eskatzailearen sinadura edo bere borondatea egiazkoa dela egiaztatzen duen beste edozein adierazpen.

Eskaera erakundearen bulegoetan aurkez daiteke, edo beste bide edo moduren bat erabilia igorri ahal da Erakundera, paperean edo beste euskarri batean, betiere eskaera benetakoa eta osoa dela eta Erakundeak gorde eta jaso dezakeela bermatuta.

Erreklamazioa edo azalpen-eskaera Erakundearen bulegoetan aurkeztuz gero, sarrera zenbaki bat emango zaio, eta erregistratuta geratuko da. Eskatzaileak dokumentua zein datetan aurkeztu duen egiaztatzeko ziurtagiria eskatu ahalko du.

Eskaerak Erakundeko zuzendari nagusiak edo hark izendatutako ordezkoak aztertuko ditu, lehenbailehen, eta Gobernu Batzordeari horien berri emango die, handik aurrera egindako lehenengo bilkuran. Eskaera erakundearen bulegoan aurkeztu zenetik zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean erantzunik jaso ez bada, ezetsizat joko da. Hortaz, eskatzaileak indarrean dagoen legediak aitortzen dion beste edozein egintza hasi ahal izango du.

IX. TITULUA: ERAKUNDEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

66. ARTIKULUA. ARRAZOIAK

Honako hauek Erakundea desegiteko arrazoiak izango dira:

- a) Kolektiboa desagertzea.
- b) Beste Erakunde batzuek xurgatzea edo horiekin batzea.
- c) Ondasunak galtzea, helburuak betetzea ezinezko bihurtuz.
- d) Hala eskatzen duen lege-xedapena.

67. ARTIKULUA. LIKIDAZIO BATZORDEA

Erakundea desegitea erabakiz gero, Gobernu Batzordeak Likidazio Batzordea izendatuko du, beharrezko izapidetze-lanak betetzeko.

Likidazio Batzordea Erakundeko bazkideen artean aukeratutako hiru kidek, Gobernu Batzordeko bi kidek eta bertako presidentek osatuko dute; Erakundeko teknikari bat ere izango da; ahotsa izango du, baina ezin izango du bozkatu.

Nolanahi ere, Erakundea desegiteko alde aurreko betekizuna izango da eragindako prestazioak modu indibidualean bermatzea eta bazkide osoen eskubide ekonomikoak beste Erakunde batean integratzea.

68. ARTIKULUA. LIKIDAZIO BATZORDEAREN FUNTZIOAK

Likidazio Batzordeak likidazio arauak onartu eta gauzatuko ditu, onartutako prestazioak eta jasotako eskubideak aztertuz, eta ondarea bazkideen eta onuradunen artean hainbanatuz.

Likidazioaren emaitzak soberakina baldin badauka, soberakina gizarte jardueretara bideratu beharko da.